

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Diputatu Nagusiaren 264/2016 Foru Dekretua, abuztuaren 26koa, baimena ematen diona María del Mar Arranz Olmos Zanbranako Udaleko idazkariari, orobat Mañueta, Eskuernaga eta Samaniegoko udalerrien taldeko idazkari lanetan ere jarduteko, eginkizunen metaketa bidez, 2016ko irailaren 21era arte

Mañueta, Samaniego eta Eskuernagako alkateek, zeinek talde bat eratu duten gaikuntza nazionalako funtzionarioei gordetako idazkari lanpostua batera mantentzeko, foru aldundi honetan aurkeztutako idazki baten bidez eskatu dute María del Mar Arranz Olmos Zanbranako Udaleko idazkariari baimena emateko, orobat lehen aipatutako udalerrien taldeko idazkari-kontuhartzaile lanetan ere jarduteko, eginkizunen metaketa bidez, talde horretako idazkari-kontuhartzaile lanpostuko eginkizunak bete gabe baitaude.

Halaber, Zanbranako Udalaren idazkia jaso dugu, bai eta bertako idazkariarena ere, eta biek adierazi dute ados daudela eskatutako izendapenarekin.

Alde horretatik, adierazi behar da uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuak, gaikuntza nazionalako toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzkoak, haxe dioela 31. artikuluko 1. idatz zatiko azken paragrafoan:

“toki korporazioak eskatuta egingo da metaketa, dagokion funtzionarioaren eta berak destinoa duen erakundearen adostasunarekin”

Oraingo honetan, betetzen dira eginkizunak metatzea erabaki ahal izateko lege ezarritako betebeharrak, jaso baita Mañueta, Samaniego eta Eskuernagako udal taldearen berriazko eskaera, bai eta baimen eskaeraren xede den funtzionarioaren adostasuna, zeina Idazkaritza-Kontuhartzaitza azpieskalakoa den, eta aipatutako funtzionarioak lan egiten duen Zanbranako Udalaren adostasuna ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan, eskatu den metaketa baimentzeko eskumena duen organoa Arabako Foru Aldundia da, uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarriko 1. paragrafoan zehazten den bezalaxe.

Horregatik guztiagatik, 52/1992 Foru Arauaren 40. artikulua esleitzen dizkidan ahalmenak erabiliz (52/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa), diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekoaren Saileko foru diputatua kanpoan daudenez, ebazpen hau foru dekretuz eman beharra dago, haren eginkizunak hartzen baitituz neure gain,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Baimena ematea María del Mar Arranz Olmos Zanbranako Udaleko idazkariari, orobat Mañueta, Eskuernaga eta Samaniegoko udalerrien taldeko idazkari lanetan ere jarduteko, eginkizunen metaketa bidez, gaikuntza nazionalako funtzionarioei gordetako idazkari lanpostua batera mantentzeko.

Bigarrena. Baimen hori 2016ko irailaren 21era arte baino ez da ematen.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abuztuaren 26a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Oreka zuzendaria

IÑAKI GUILLERNA SAENZ